

GARRAIO ASTUNEI ERABILERAGATIK ORDAINARAZTEKO SISTEMA BERRIA BIZKAIAN

N-240 BI-625



Bizkaian, salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunek errepideak erabiltzeagatik ordaindu beharko dute **2023ko urtarrilaren amaieratik aurrera** N-240 errepidean (El Galloko lotunetik Ubidera) eta BI-625 errepidean (Laudiotik Basaurira).

Sistema berriak 7/2022 Foru Arauaren eta Europako Batzordearen babesa du.

Urtarrilaren 1ean, era berean, **ibilgailu eraginkorrenei murrizketak aplikatuko** dira, baldin eta gehieneko isuriei buruzko azken EURO arauetara egokitzen badira.

Erabiltzeagatik ordaintzeko sistemak honako xede hauek ditu:



Ezartzen den errepideen sarean baldintzarik onenak bermatzea




Sarea kontserbatu, mantendu eta ustiatzeko inbertsio nahikoa bermatzen duen kudeaketa eraginkor eta orekatuagoa ahalbidetzea



Bide-segurtasuna hobetzea



Bizkaia EBan ezarritako deskarbonizazio gidalerroekin lerrotatzea eta 3,5 tona baino gehiagoko kamioi handiei CO₂ emisioak murriztera bultzatzea




IBILGAILUEN SAILKAPENA

Erabiltzeagatik ordaintzeko sistema ezarriko zaie aipaturiko bideetan 3,5 tona baino gehiagoko gehieneko pisua baimenduta duten ibilgailuei:



ASTUNAK I

3,5 tonatik gorako eta 12 tonatik beherako gehieneko pisu baimendua



ASTUNAK II

Gehieneko pisu baimendua 12 tona edo gehiagokoa dutenak

ORDAINTZEKO MODUA

Matrikula ordaintzeko modu batera lotzea hemen:

interbiak.bizkaia.eus

Edo teleordainketako sistema erabili:
www.viat.es/contratar-via-t

ARGIBIDE GEHIAGO

900 840 048

Astelehenetik ostiralera,
8:00etatik 20:00etara

interbiak.bizkaia.eus

N-240 TARIFAK ETA DESKONTUAK

N-240 errepidean Free Flow sistema duten 9 arku aktibatuko dira, El Galloko lotunearen (55 KP) eta Ubidearen (23 KP) artean jarriak, honako tarifa honen arabera (BEZa barne), jarraian jasotako kontrol-puntuetatik igarotzean:

BEHERANZKO NORANZKOA (ARABA)	Astunak I	Astunak II
USANSOLO	0,43	0,48
BEDIA	1,62	1,82
Lemoan errepidetik ateratzen (Estaziño Auzoa)	1,03	1,15
Lemoan errepidera sartzen (Estaziño Auzoa)	0,59	0,67
APARIO	0,29	0,32
IGORRE IPARRALDEA	0,32	0,37
IGORRE HEGOALDEA	0,69	0,77
BI-2543 (Dima) errepidetik ateratzen	0,26	0,29
BI-2543 (Dima) errepidera sartzen	0,43	0,48
ARANTZAZU	0,87	1,36
AREATZA	1,22	1,90
ZEANURI	0,66	1,03
BARAZAR	5,78	8,93
BI-3542 (Otxandio) errepidera sartzen	1,40	2,06
BI-3542 (Otxandio) errepidetik ateratzen	4,38	6,87

GORANZKO NORANZKOA (BILBO)	Astunak I	Astunak II
BARAZAR	5,78	8,93
BI-3542 (Otxandio) errepidetik ateratzen	1,40	2,06
BI-3542 (Otxandio) errepidera sartzen	4,38	6,87
ZEANURI	0,66	1,03
AREATZA	1,22	1,90
ARANTZAZU	0,87	1,36
IGORRE HEGOALDEA	0,69	0,77
BI-2543 (Dima) errepidetik ateratzen	0,43	0,48
BI-2543 (Dima) errepidera sartzen	0,26	0,29
IGORRE IPARRALDEA	0,32	0,37
APARIO	0,29	0,32
BEDIA	1,62	1,82
Lemoan errepidetik ateratzen (Estaziño Auzoa)	0,59	0,67
Lemoan errepidera sartzen (Estaziño Auzoa)	1,03	1,15
USANSOLO	0,43	0,48

Egindako ibilbideen **% 13KO DESKONTUA** egingo zaie hilabete naturalaren barruan N-240 Tarragona - Bilbo (Barazar) errepidean, Urgoitiko lotunetik (55,773 KP) Ubidea saihesbidera arte (23,050 KP), **180 kontrol-puntutik edo gehiagotik** igarotzen diren ibilgailuei, baldin eta ordainketa eta identifikazio telematikoko OBE gailuaren bidez ordaintzen badute. Aurreko guztia betez gero, deskontua lehenengo urratsetik hasita aplikatuko da.



BI-625 TARIFAK ETA DESKONTUAK

BI-625 errepidean Free Flow sistema duten 8 arku aktibatuko dira Laudiotik (372,560 KP) Basaurira arte (387,310 KP), honako tarifa honen arabera (BEZa barne), jarraian jasotako kontrol-puntuetatik igarotzean:


GORANZKO NORANZKOA (BILBO)	Astunak I	Astunak II
ARAKALDO	0,45	0,50
ZOLLO	0,94	1,05
BAKIOLA	0,23	0,26
UGAO-MIRAVALLS	1,01	1,13
ZARATAMO	0,64	0,72
LAPATZA 1	0,40	0,44
“Lapatzako industrialderako” errepidetik ateratzen	0,14	0,15
“Lapatzako industrialdetik” errepidera sartzen	0,26	0,29
IRUBIDE	0,36	0,40
BI-3720 (Galdakao) errepidetik ateratzen	0,28	0,31
BI-3720 (Galdakao) errepidera sartzen	0,08	0,09

BEHERANZKO NORANZKOA (ARABA)	Astunak I	Astunak II
IRUBIDE	0,36	0,40
BASAURI	0,14	0,15
ARRIGORRIAGA	0,26	0,29
ZARATAMO	0,64	0,72
UGAO-MIRABALLES	1,01	1,13
BAKIOLA	0,23	0,26
ZOLLO	0,94	1,05
ARAKALDO	0,45	0,50

Egindako ibilbideen % **13KO DESKONTUA** egingo zaie hilabete naturalaren barruan BI-625 errepidean Laudiotik (372,560 KP) Basaurira (387,310 KP) **160 kontrol-puntutik edo gehiagotik** igarotzen diren ibilgailuei, baldin eta ordainketa eta identifikazio telematikoko OBE gailuaren bidez ordaintzen badute. Aurreko guztia betez gero, deskontua lehenengo urratsetik hasita aplikatuko da.



DESKONTUAK **IBILGAILURIK** **ERAGINKORRENTZAT**



Doikuntza hileroko eta hilabetea igarotakoan ordainduko dira, OBE/VIA-T gailuari lotutako kontuan, eta hiru motatakoak izango dira, motor motaren eta horren emisio-mailaren arabera (horretarako matrikula interbiak.bizkaia.eus webgunean erregistratu ondoren):

25%

Ibilgailu astun elektrikoentzat, hibridoentzat eta gasez propulsatutakoentzat, "0" etiketa duten ibilgailuentzat eta DGTren sailkapenaren ECO etiketa duten ibilgailuentzat

20%

EURO 6 ibilgailu astunentzat

15%

EURO 5 ibilgailu astunentzat